

BATERALABS-EN TOLOSALDEAKO ESKUALDEKO 1. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko maiatzaren 28a (osteguna)

Lekua: Topic Aretoa, Tolosa (Gipuzkoa)

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Tolosaldean** herritarren laborategia hastea izan zen, lurraldeko klima-erronkak identifikatzeko eta gizarte-eragileen, herritarren eta erakundeetako ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Saio honek **Klima aldaketari eta horrek eskualdean duen eraginari buruzko informazioa** emateko, Tolosaldeako eskualdeko elkarte eta herritarren ordezkarien talde bat sortzeko eta bigarren saioan landuko diren erronkak ateratzeko balio izan zuen. Hori guztia herritar eta politikariekin zuzenduta dago: hainbat udalerri eta eskualde-agentzietako ordezkari publikoekin, auzo-elkarteekin, elkarte sektorialekin eta eskualdeko eragileekin.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduraduna:** Monica Pedreira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Zuzendaria.
- **Deskribapena:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik irekiera eta ongietorri hitzak bertaratuei. Proiektuak herritarren benetako partaidetzarako foro gisa duen garrantzia nabarmendu zuen, baita klima-aldaketak eguneroko bizitzan duen eragin zuzena eta Goierriko eskualdean izan dezakeen eragina ere. Eskualde bakoitzera egokitutako

politiken beharra azpimarratu zuen, oinarri zientifikoarekin eta herritarren eta administrazioen arteko lankidetzarekin.

2. Eskualdeko datuak eta informazioa aurkeztea (25 min)

- **Arduraduna:** Xabier Esteban, Naturklimaren zuzendaria eta Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea.
- **Deskribapena:** Klima-aldaketa propioak Goierri duen eraginari buruzko datuak eta informazio zientifikoa azaltzea.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (10min)

- **Arduraduna:** Xabier Murua, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Parte-hartze prozesuaren azalpena, hiru saio dituela adieraziz: klima-erronkak identifikatzea, proposamenak egitea eta amaierako proiektua aurkeztea. Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: erronkak identifikatzeko erabiliko liratekeen helburu espezifikoak eta dinamikak. Ordezkarri publikoen eta eskualdeko agentzien parte-hartze aktiboaren garrantzia nabarmendu zen, prozesuaren ordezkagarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko eta Bateralabs.eus-en online parte hartzeko aukera bermatzeko.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Dinamika lan-mahaien bidez garatu zen. Mahai horietan, parte-hartzaileek lurraldeko klima-erronkak identifikatu zituzten, post its -ak erabiliz eta taldean eztabaidatuz. Ondoren, mahai bakoitzak identifikatutako ideia nagusiak partekatu ziren plenarioan. Herritarren laborategiaren saioan, taldeetan lan egin zen Goierriko jasangarritasunarekin lotutako lehentasunezko arazoak eta erronkak identifikatzeko, arreta berezia jarritz mugikortasunari, hondakinen kudeaketari, espazio naturalei, energiari eta klima-aldaketarako egokitzeari.

Horretarako, eskualdeko mapa bat landu zen, eta mapa horren gainean tokiko erronkak identifikatu eta kokatu ziren. Jarraian, lan-mahai bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira.

1. Taldea. Bozeramailea: Zizurkil

Talde honetan, bero-boladen aurrean herrietan itzalgune gehiago sortzeko beharra azpimarratu zen. Bereziki, Zizurkilen tenperatura altuei aurre egiteko itzala eskaintzen duten espazioen gabezia nabarmendu zen. Era berean, urbanizazio-proiektu berriak diseinatzerakoan itzalen sorrera eta klima-egokitzapena kontuan hartzen ez direla adierazi zen, eta etorkizuneko hirigintza-garapenetan irizpide horiek txertatzeko beharra aipatu zen.

Mugikortasunari dagokionez, motordun ibilgailuen zirkulazioa murrizteko premia azpimarratu zen, horrek airearen kalitatean eragin negatiboa duelako. Halaber, aldiriko tren zerbitzuaren maiztasuna murriztu dela adierazi zen, eta garraio publikoaren eskaintza indartzeko beharra nabarmendu zen.

Azkenik, bidegorri sarearen osaketa amaitu gabe dagoela adierazi zen, bereziki Aduna inguruan Donostialdearekin lotura emango lukeen tarteak falta dela azpimarratuz.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun Jasangarria

- Motordun ibilgailuen zirkulazio handiak airearen kalitatean duen eragina.
- Aldiriko tren zerbitzuaren maiztasunaren murrizketa.
- Bidegorri sarearen etenak, bereziki Donostialdearekin loturarik eza.
- Trafiko motorizatua murriztea.
- Bidegorri sarea osatzea eta loturak hobetzea.

Hiri Berroneratzea / Eremu Estrategikoak

- Itzalgune falta herrigunean.
- Hirigintza-proiektu berriek klima-egokitzapeneko irizpideak ez txertatzea.

- Hirigintza-proiektuetan itzalguneak eta klima-egokitzapeneko neurriak kontuan hartzea.

Osasuna

- Temperatura altuen eragina eta itzalguneen gabezia.
- Trafikoak eragindako aire-kutsadura.

Klima Aldaketa

- Temperaturen igoerara egokitzeko beharra

2. Taldea. Bozeramailea: Ainhua, Zizurkileko ingurumen teknikaria

Taldeak eskualde ikuspegitik aztertu zituen klima-erronkak. Gune berdeei dagokienez, azken urteetan basoetan gertatzen ari diren ezohiko euriteek sortzen duten kezka azaldu zen. Horri lotuta, eurite horien ondorioei aurre egiteko beharrezko azpiegiturak ez daudela behar bezala prestatuta adierazi zen, eta erreken eta ur-bideen mantentze-lanetarako baliabide gehiago behar direla nabarmendu zen.

Suteen arriskuari dagokionez, eskualdean eta inguruko lurraldeetan ere antzeko egoerak gerta daitezkeela adierazi zen. Horren aurrean, mendiko larreak eta babes-eremuak mantentzearen garrantzia azpimarratu zen, suteak hedatzea saihesteko elementu gisa. Era berean, bide eta ur-hornidurako azpiegiturak hobetzeko beharra aipatu zen, batez ere bero handiko garaietan arrisku horiei aurrea hartzeko.

Azaldu zen, halaber, Tolosaldeko udalerri gehienak tamaina txikikoak direla eta askotan ez dutela nahikoa baliabiderik ez azpiegiturak garatzeko ezta proiektu teknikoak diseinatzeko ere.

Larrialdi egoerei dagokienez, eurite handien aurrean herritarrek nola jokatu behar duten ez jakitea ere erronka gisa identifikatu zen. Horrez gain, eskualdearen ezaugarri geografikoek arrisku bereziak sortzen dituztela azaldu zen, izan ere, malda handiko eremua izanik,

herriguneak eta industria-eremuak ibaiertzetan kokatzen dira sarritan, eta euri-urak behar bezala bideratzen ez direnean kalte handiak eragin ditzakete.

Bero-boladen aurrean, itzalguneen gabezia ere azpimarratu zen, eta horien mapa edo inbentario bat egitea proposatu zen.

Mugikortasunari dagokionez, Apatta industrialdearen konektibitate eskasa nabarmendu zen, bai garraio publikoaren ikuspegitik bai oinezkoentzako sarbideei dagokienez. Tolosatik kanpoko udalerriek industrialdearekin dituzten loturak ere hobetu beharrekoak direla adierazi zen.

Bestalde, bizikleta elektrikoa garraio jasangarriaren alternatiba gisa aipatu zen, baina horretarako aparkaleku egokien gabezia identifikatu zen. Azkenik, tren eta autobus zerbitzuek azkenaldian izan duten funtzionamendu eskasa kritikatu zen.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun Jasangarria

- Apatta industrialdearen garraio publiko bidezko konektibitate eskasa.
- Oinezkoentzako sarbide egokien falta.
- Tren eta autobus zerbitzuen funtzionamendu eskasa.
- Bizikletentzako aparkaleku falta.
- Apattarako loturak hobetzea.
- Bizikleta elektrikoaren erabilera sustatzea.
- Bizikletentzako aparkaleku gehiago sortzea.

Hiri Berroneratze

- Itzalguneen gabezia.
- Itzalguneak identifikatu eta mapatzea.

Klima Aldaketa

- Ezohiko euriteen ugaritzea.
- Sute-arriskuaren hazkundera.
- Udalerri txikietan baliabide tekniko eta ekonomikoen falta.

- Azpiegitura hidraulikoak indartzea.
- Suteen prebentziorako larreak eta babes-eremuak mantentzea.
- Egokitzapen-proiektuetarako baliabide gehiago bideratzea.

Uholdeak

- Herritarren prestakuntza falta larrialdi egoeren aurrean.
- Ibaiertzetan kokatutako industria eta herriguneen zaurgarritasuna.
- Uraren bideraketa eta kudeaketa hobetzea.
- Herritarren prestakuntza eta informazioa indartzea.

Gobernantza

- Udalerri txikien baliabide urritasuna.

3. Taldea. Bozeramailea: Jon Larrañana, Orixe Institutua

Taldeak hezkuntza-azpiegituren egokitzapena izan zuen hizpide nagusietako bat. Azaldu zen ikastetxe askok ez dutela behar bezala erantzuten gero eta ohikoagoak diren bero-boladei. Orixe Institutuko eraikin berria adibide gisa aipatu zen, gaur egungo klima-baldintzetara egokitutako irizpide nahikorik ez duelako eta aireztapen-arazoak dituelako.

Era berean, eraikin publikoen energia-eraginkortasunaren inguruko azterketa sakonagoak egiteko beharra planteatu zen. Ikastetxeetan isolamendu eskasa dagoela eta neguan zein udan erosotasun termikoa bermatzeko gabeziak daudela nabarmendu zen.

Jolastokien egokitzapena ere lehentasunezko erronka gisa identifikatu zen. Horretarako laguntza-programak badaudela aipatu zen arren, udalerri eta ikastetxe askok proiektu teknikoak garatzeko zailtasunak dituztela azaldu zen. Gainera, klima-egokitzapeneko neurriak sustatzeko pedagogia eta sentsibilizazio handiagoa behar dela adierazi zen.

Mugikortasunaren arloan, lanera eta ikastetxeetara bizikletaz joateko sarearen gabeziak nabarmendu ziren. Bidegorri zatiak badauden arren, sare jarraitu eta konektatu baten falta azpimarratu zen. Halaber, auto pribatuaren erabilera oso hedatua dagoela azaldu zen, bai langileen artean bai ikasleen artean, eta horrek aparkalekuen saturazioa eragiten duela adierazi zen.

Eztabaidan zehar, garraio publikoaren alternatibak sustatzeko egindako saiakeren inguruko hausnarketa egin zen. Horien artean, garai batean martxan jarritako lanzadera zerbitzuaren erabilera urria aipatu zen, eta mugikortasun-ohiturak aldatzeko pedagogia eta sentsibilizazio handiagoa behar direla nabarmendu zen.

Bestalde, batxilergoko ikasleen garraio-beharrak eta lanbide heziketako ikasleek sistema dualaren ondorioz dituzten mugikortasun-zailtasunak ere aipatu ziren. Kasu askotan, auto pribatuaren erabilera ia ezinbestekoa bihurtzen dela adierazi zen, eta garraio publikoaren, ikastetxeen eta udalen arteko koordinazio handiagoa eskatu zen.

Azkenik, ibaien egoerarekin lotutako arazoak ere azaldu ziren. Uholdeak maiz gertatzen direla adierazi zen, eta zenbait puntutan urak bidegorriak hartzen dituela, erabiltzaileak errepidera irtetera behartuz. Horren aurrean, bizikleta-azpiegituren mantentze eta segurtasunari arreta handiagoa eskaintzeko beharra azpimarratu zen.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun Jasangarria

- Bidegorri sarearen jarraitutasun falta.
- Auto pribatuarekiko mendekotasun handia.
- Aparkalekuen saturazioa.
- Ikasle eta langileen mugikortasun zailtasunak.
- Bidegorri sarea osatzea.
- Mugikortasun ohitura jasangarriagoak sustatzea.
- Garraio publikoaren eta erakundeen arteko koordinazioa indartzea.

Energia

- Eraikin publikoen energia-eraginkortasun eskasa.
- Isolamendu termikoaren gabeziak.
- Energia-eraginkortasunari buruzko azterketak egitea.
- Eraikin publikoak klima-baldintza berrietara egokitzea.

Osasuna

- Ikastetxeak bero-boladetara egokitu gabe egotea.

- Erosotasun termikoaren gabeziak.

Klima Aldaketa

- Bero-boladen maiztasun eta intentsitate handiagoa.
- Hezkuntza-azpiegituren egokitzapen falta.
- Ikastetxeak eta jolastokiak egokitzea.

Hezkuntza / Kultura

- Egokitzapen-proiektuak garatzeko zailtasunak.
- Aldaketa batzuen aurrean dagoen erresistentzia soziala.
- Sentsibilizazioa eta pedagogia indartzea.

Uholdeak

- Uholde errepikakorrak.
- Bidegorrietan sortzen diren arazoak eta segurtasun arriskuak.
- Azpiegituren mantentzea eta segurtasuna hobetzea.

Gobernantza

- Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.

4. Taldea. Bozeramailea: Inma mugerza, Lurpea Garbi

Taldeak lurraldearen kudeaketa integrala klima-egokitzapenerako funtsezko elementutzat jo zuen. Horren harira, ibaiak ez direla ur-ibilgu hutsera mugatzen gogorarazi zen, baizik eta arro osoaren kudeaketa kontuan hartu behar dela azpimarratu zen.

Ur-baliabideen inguruan, lurpeko uren tenperaturaren igoerak eta ur-erreserben murrizketak sortzen duten kezka azaldu zen. Illur iturburuaren ahalmena etorkizunean nahikoa ez izateko arriskua aipatu zen, eta akuiferoen garrantzia azpimarratu zen. Horrekin lotuta, kobazuloetan metatutako hondakinek uraren kalitatea arriskuan jar dezaketela adierazi zen, bereziki uralita eta pneumatikoak bezalako hondakinen presentziagatik.

Halaber, uralita kudeatzeko indarrean dagoen araudia berrikusteko beharra planteatu zen, egungo baldintzek hondakin horien abandonua sustatu dezaketela iritzita. Purinen kudeaketak ere kezka sortzen duela adierazi zen, ingurune karstikoetan lurpeko urak kutsatzeko arriskua dagoelako.

Uholdeei dagokienez, herritarren prestakuntza eta informazioa indartzeko beharra nabarmendu zen. Azaldu zen herritar askok ez dakitela nola jokatu uholde egoera baten aurrean, ezta arrisku mota desberdinen ezaugarriak bereizten ere.

Bestalde, mendiko bideen mantentze-lanak indartzeko beharra azpimarratu zen, bai ganaduaren mugikortasuna bermatzeko bai herritarren erabilerarako. Zenbait bidek higadura handia dutela eta zenbait tokitan egoera ia iraganezina dela azaldu zen.

Mugikortasunari lotuta, Tolosako zenbait gunetan trafikoaren antolaketa berrikusteko beharra aipatu zen. Azkenik, uholdeen aurkako larrialdi-planak eguneratu eta berrikusteko eskaera egin zen.

Erronken laburpena gaika:

Ekonomia Zirkularra

- Kobazuloetan eta akuiferoetan pilatutako hondakinak.
- Uralita eta pneumatikoen kudeaketa desegokia.
- Purinen kudeaketak sortutako arazoak.
- Uralitaren inguruko araudia berrikustea.
- Kutsatutako kobazuloak garbitzea eta berreskuratzea.

Osasuna

- Uraren kalitateari lotutako arriskuak.
- Akuiferoen kutsadura.

Klima Aldaketa

- Lurpeko uren tenperaturaren igoera.
- Ur-baliabideen murrizketa posiblea.
- Arro osoaren ikuspegitik lurraldearen kudeaketa egitea.

Uholdeak

- Herritarren ezagutza falta uholdeen aurrean.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa indartzea.
- Uholdeen aurkako larrialdi-planak berrikustea.

Lehen Sektorea

- Mendiko eta landa-bideen narriadura.
- Ganaduaren mugikortasunerako zailtasunak.
- Bideen mantentze-lanak eta egokitzapenak egitea.

Mugikortasun Jasangarria

- Trafikoaren antolaketarekin lotutako arazoak.
- Trafiko-fluxuak berrantolatzea.

Gobernantza

- Larrialdi-planak eguneratzea eta berrikustea.

Beste batzuk

- Ibilguen, bideen eta naturaguneen mantentzea hobetzea.

5. Taldea. Bozeramailea: Uxue, Lurpea Garbi

Talde honetan energia-komunitateen sorrera sustatzeko beharra azpimarratu zen, herritarren parte-hartzea eta energia-trantsizioa errazteko tresna gisa.

Mugikortasunaren arloan, Tolosako bidegorrietan segurtasun-arazoak identifikatu ziren, bereziki ikasleen sarrera eta irteera orduetan. Era berean, Ugarte eta Alegia arteko bidegorriaren lotura osatzeko beharra planteatu zen.

Herri txikietan garraio publikoaren eskaintza hobetzeko premia ere azpimarratu zen, batez ere landa-eremuetako herritarren mugikortasuna bermatzeko.

Uraren eta ibaien kudeaketari dagokionez, komunikazioa eta koordinazioa indartzeko beharra aipatu zen. Horrez gain, eremu babestuetako basoen kudeaketan gabeziak daudela adierazi zen, eta kutsatutako kobazuloen inguruan egindako diagnostiko-lanak aurrera eramateko udalen inplikazio handiagoa eskatu zen.

Uraren kalitatearen inguruko kezka ere azaldu zen, erabilitako ur-baliabideak kutsatzen ari direla ohartaraziz. Bestalde, Tolosan parke eta guner berde gehiago sortzeko beharra identifikatu zen, klima-egokitzapenaren eta herritarren ongizatearen ikuspegitik.

Azkenik, baso-kudeaketarako eta mantentze-lanetarako baliabide ekonomikoen gabezia nabarmendu zen. Taldeak azpimarratu zuen uraren kontserbazioa lehentasunezko erronka dela, eta horren aldeko neurri zehatzak baliabide mugatuekin ere garatu daitezkeela adierazi zen.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun Jasangarria

- Bidegorrietako segurtasun arazoak.
- Herrien arteko lotura ziklagarrien gabezia.
- Herri txikietako garraio publikoaren gabeziak.
- Ugarte eta Alegia arteko bidegorria lotzea.
- Herri txikietako garraio publikoa hobetzea.

Energia

- Energia-komunitateen sorrera erraztea.

Hiri Berroneratzea / Eremu Estrategikoak

- Tolosan parke eta guner berdeen gabezia.
- Guner berde gehiago sortzea.

Klima Aldaketa

- Basoen kudeaketan dauden gabeziak.
- Ur-baliabideen babesaren beharra.

Uholdeak

- Ibai-kudeaketaren inguruko komunikazioa hobetzea.

Lehen Sektorea

- Baso-kudeaketarako baliabide ekonomikoen falta.

Gobernantza

- Udal batzuen inplikazio eskasa ingurumen-proiektuetan.
- Erakundeen arteko lankidetzaren indartzea.

Osasuna

- Uraren kalitateari lotutako arriskuak.

Ekonomia Zirkularra

- Kutsatutako kobazuloekin eta hondakin historikoekin lotutako arazoak mantentzea.

3. Itxiera

Arduraduna: Xabier Esteban, Naturklimako zuzendaria.

Saioa amaitzeko, parte-hartzaileei eskerrak eman zitzaizkien eta hurrengo saioetan identifikatutako erronkei erantzuteko proposamenak lantzen jarraitzeko gonbita egin zitzaien.